

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Sinatu da estatuarekiko lankidetzaren hitzarmena lan eta gizarte segurantzaren ikuskaritzaren arloan

*Nafarroak parte handiagoa izango du arlo horietan, eta zabaldu egin da bi administrazioen arteko koordinazioa*

Astelehena, 2018.eko abuztuak 6

Nafarroako Gobernuak eta estatuak, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritza organismo autonomoaren bidez, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu berri dute lan eta gizarte segurantzaren ikuskaritzaren arloko kooperazioa garatzeko.

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik sinatu du dokumentua Nafarroaren izenean, eta organismo autonomoko zuzendari María Soledad Serranok estatuaren izenean.

[2015eko uztailaren 21eko 23/2015 Legeak](#) antolaketa-esparru berri bat ezartzen zuen Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarako (LGSi), eta organismo autonomo bihurtu zuen —erakunde hori 2018ko apirilaren 9an eratu zen—. Sinatutako hitzarmenak LGSiren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren mekanismoak ezartzen ditu, eta zehazten du zer funtzio izango dituen Ikuskaritzaren Agintaritza Autonomikoak, nola hartuko duen parte Nafarroako Foru Komunitateak lurralde-zuzendaria izendatzean, eta nola dagoen erarabita eta zer funtzio dituen Batzorde Operatibo Autonomikoak, bai eta lan eta gizarte segurantzaren ikuskaritzaren arloan bi aldeentzat interesgarriak izan daitezkeen bestelako gaiak ere.

Gogoan izango denez, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen, uztailaren 4an, kooperazio-hitzarmena sinatzeko. Hitzarmen horrek, antolaketa-esparru berri baten bitartez, funtzioak gehiago deszentralizatzea lortu nahi du, eta autonomia-erkidegoei parte-hartze handiagoa ematea.

Horretarako, parte hartuko dute, estatu-organismoarekin batera, organismoarentzat garrantzitsuenak diren erabakiak hartzen, haren zuzendaritza-batzordearen bidez.

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren

Agintaritza Autonomikoak funtzio hauek beteko ditu, besteak beste:

ikuskaritza-jarduera bultzatzea eta haren segimendua egitea, Nafarroaren eskumenei dagokienez; jarduera-memoriak aurkeztea; ikuskaritza-jarduerak gainbegiratzea; ikuskaritza-zereginak dituzten langileak trebatzeko berariazko planak eta programak proposatzea; eta helburuen lurralde-programa aurkeztea. Lan-arloko dagokion saileko titularrak beteko du agintaritza hori; kasu honetan, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik.

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren Batzorde Operatibo Autonomikoa kide anitzeko organo bat izango da, estatuko administrazioak eta Foru Komunitatea lankidetzan aritu daitezten ikuskaritzari dagozkion gaietan.

Ikuskaritzaren Agintaritza Autonomikoari dagokio lehendakaritza, eta gutxienez zuzendari nagusiaren maila duen Foru Administrazioko beste agintaritza bati eskuordetu diezaioke bere saioetako lehendakaritza.

Batzordean, kide-kopuru bera egongo da bi administrazio publikoetatik, eta ahaleginduko da gizon- eta emakume-kopurua ere orekatua izan dadin.

Bere zereginen artean, aipagarriak dira aztertzea zer arau urratzen diren gehien Nafarroan; informaziorako eta laguntza teknikorako behar diren mekanismoak ezartzea; lurralde-programa onestea; jakitea zer plan eta programa dituen Administrazio Autonomikoak enpleguari, lan-harremanei eta lan-arriskuak prebenitzeari dagokienez; eta segimendua egitea, ea betetzen diren hitzarmen honetan hartutako konpromisoak.